Dena desberdin eta gu desberdin

Amagoia Mujika Telleria

Nire lagun batek umorez esaten du lehen igande goizetan apaizak egiten zigula errieta pulpitutik eta, orain, Felix Zubia medikuak egiten digula errieta igande goizetan irratitik. Hala ere, laguna eta biok gehiago gara Zubiari kasu egitekoak. Eta, seguruen, apaizak baino arrazoi zorrotzagoekin hartzen digu kargu medikuak herritarroi. Apaizaren begietara gauza gehiegi dira bekatu, eta guri gehienak gustatu.

Pentsa, lehen urtearen hasieran jaiotako haurrak izaten ziren albiste, urte berriarekin sortutako bizitza berriak. Aurten txertoa hartu duten lehen herritarrek hartu diete lekukoa albistegietan, jaioberrien aldean bizitzaren beste muturrean daudenak. Hori ere desberdin.

Lehen, etxekoren bat ospitaleratzen zutenean, haren ondoan egon besterik ezin zuten egin etxekoek. Osasun profesionalen esku zegoen haren gorputza, maite zutenen esku haren egonezina edo ongizatea. Gozatu, lasaitu, zaindu, babestu, kulunkatu. Osasuna okertzen denean etxekoek egin zezaketen gauza bakarra ezin dute egin orain. Distantziaren hotzean egon eta itxaron. Ez dago besterik.

Dena desberdin eta gu desberdin. Dena da isilagoa bezala, lotuagoa, larriagoa. Orain, txarrean ondo samar egotea da helburu nagusia. Ezin da beste askorik eskatu. Gauza txikiek distira distiratsuagoa daukate. Akaso dena ez da kalterako izan.

Dena desberdin eta gu desberdin, disimuluan lehengo berak izan nahian bezala. Segur aski horregatik amorratzen naiz neure buruarekin telebistari begira jarri eta film batean jende multzo handia elkarren ondoan eta musukorik gabe ikusi eta artega samar jartzen naizela sumatzen dudanean. •

Irrikaz

Xabier Mikel Errekondo

Gogoak lotuta dauzkat, atxilo etxean, lotuta eta gaizki ikusiak. Orain arteko bizimodua zikina eta lizuna izan balitz legez...

Guztion osasunaren izenean, batzuek ezarri erdibideko erabaki tranpatietan tronpatuta.

Gogoak lotuta dauzkat gogoz kontra.

Gogoa dut ikustekoa hausnarketa inklusibo benetakoa, Urkullu-murruok areagotutako ezberdintasun arrakala iraulita. Gogoa dut pentsatzeko libreki berriro, arau hesi eta txarrantxen gainetik.

Gogoa dut egin ahal izatekoa gogora datorkidan hura, kikiltzeko helburu duten beldur balei, beldur babei, jaramonik egin gabe.

Gogoa dut ikustekoa zaintza kolektiboa bermatzeko proiektu eraikitzaileak, zainduen eta zaintzaileen duintasunean oinarrituta, zaindu egin behar dugula agintzen diguten erakundeen eskutik. Gogoa dut ikustekoa alaitasuna helduen aurpegietan, beldurra erraietatik kanporatuta. Gogoa dut ikustekoa erakunde publikoak zein Osakidetza jendearen ez-erantzunaz harritu ez daitezen, eguneroko politikan herritarrak aintzat hartzen dituztelako.

Gogoa dut ikustekoa emakumeek etxea babesleku izan dezaten maitasunean eraikia eta ez beldur bikoitzean, itolarrian, gutxietsiak.

Gogoa dut ikustekoa haurren bizitza koloretan blai plisti-plasta, antxintxika aske parkeetan, elkarri besarkatu eta muxu ematen, haurrak haurrak direla ukatu nahi badute ere.

Gogoa dut ikustekoa ardura indibiduala dela dioten *input* guztiak irauli eta soziala dela aldarrikatuta, gutariko bakoitzak zer egin behar dugun badakigula diotenen aldetik.

Ia mende erdia da «Denok ala inor ez...» Bertolt Brechten hitzak Mikel Laboaren ahots sarkorrak iltzatu zizkigula. Balore horiei uko egitea noraezean doazen pertsona indibidualez osatutako gizartea eraikitzea litzateke.

Gogoa dut... ikustekoa afrikar esapidea gure eginda: «Jende txiki askok leku txiki askotan gauza txikiak eginez mundua alda dezagun». •